

AEMAR (Esklerosi Anizkoitzaren Arabako Elkarte)



945 157 561

info@asociacionaemar.com

asociacionaemar.com

AEMAR, Esklerosi Anizkoitzaren Arabako Elkarte, irabazi-asmorik gabeko erakundea da, esklerosiak bizitza aldatu zien eta esklerosi anizkoitza duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko elkartzea erabaki zuten pertsona-talde batek osatua.

Esklerosi anizkoitza (EA) nerbio-sistema zentraleko (NSZ) gaixotasun bat da, neurodegeneratiboa eta kronikoa. Substantzia zuriari (SZ), garuneko substantzia grisari (SG) eta bizkarrezur-muinari eragiten die. Europan eta Ipar Amerikan pertsona heldu gazteen artean ohikoena den gaixotasun neurologiko kronikoa da.

AEMARek gizarte-laguntzako eta aholkularitzako zerbitzuak ematen dizkie diagnostikatu berri diren pazienteei nahiz haien senideei. Gaixotasunaren autokudeaketa eta bizimodu aktibo eta osasungarria sustatzeko tresnak eskaintzen dizkiete EA duten gaixoei, jarduera fisiko erregularra sustatuz. Gimnasioa dute eta terapia okupazionalako, logopedia, psikologia, hidroterapia, psikomotrizitatea, eskulanak, hipoterapia eta arteterapia tailerrak eskaintzen dituzte. Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak ere garatzen dituzte eta garraio egokitua ahalbidetzen dute.

Colaboración de Fundación Vital Fundazioa

Vital Fundazioak hogei urte baino gehiago daramatza AEMAREkin lankidetzan, eta, batez ere, gaixotasunari buruzko sentsibilizazio- eta informazio-programak babesten ditu, baita funtsak lortzeko programak ere, bereziki "Mojate – Busti Zaitetz" programa. Vital Fundazioak programa horretan laguntzen du, Estadio Fundazioak bezala, izan ere Fundazio horrek bere igerilekuak lagatzen ditu jarduera solidario hori gara dadin.

Urteko hitzarmena sinatuz lankidetzan aritzeaz gain, Vital Fundazioak beste hitzarmen batzuk ere sinatu ditu AEMAREkin, finantzaketa behar zutelako laguntza-deialdietara aurkeztu diren programa jakin batzuk, esaterako pilates, hipopresiboak, etab.